



**2024KO MARTXOAREN 19KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko martxoaren 19an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Puntu honi dagokion dokumentazioa ez da aurkeztu, beraz martxoaren 4ko akta hurrengo Tokiko Gobernu Batzordean aurkeztuko da bere onarpenerako.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 20 zenbakidun zerrenda, HIRUROGEITA HAMAIIKA MILA ETA HIRUROEGITA HAMASEI euro ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA zentimokoa (71.076,71 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

**III.- ZUBIZKITZA AUZOKO 2. FASEA BERRURBANIZATZEKO OBREN KONTRATAZIO ESPE-  
DIENTEAREN ESLEIPENA.-**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Zubizkitza auzoko 2. fasearen berrurbanizazio obrak, prozedura ireki sinplifikatu bidez eta lehiaketa bidez, esleitzeko kontratazio espedientea eta honi dagokion baldintza teknikoen eta administrazio-baldintza partikularren agiriak onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2024ko otsailaren 6an eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, 3 proposamen aurkeztu ziren.

Aurkeztutako enpresak honako hauek dira:

- EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L.
- CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.
- SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.



Aurkeztutako enpresa guztiak onartuak izan ziren.

Administrazio-dokumentazioa eta balio-iritziei lotutako irizpideen arabera baloratu beharreko dokumentazioa jasotzen zuten "A" artxibo elektronikoak 2024ko otsailaren 27-an, eguerdiko 12etan, ireki ziren.

"A" artxibo elektronikoaren dokumentazioa azertu ondoren, onartutako enpresek aurkeztutako balio-iritziei lotutako irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioek lortutako puntuazioa ondorengoa da:

	EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L.	CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.	SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.
Laneko programa eta obra plana (15 puntu)	15,00	15,00	15,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>15,00</b>	<b>15,00</b>	<b>15,00</b>

2024ko martxoaren 6an, goizeko 11etan, kontratazio-mahaiaren jendaurreko bilkuran, proposamenek balio-judizioei lotutako irizpideak aplikatuta lortutako puntuen berri eman zen, eta, jarraian, automatikoki aplikatzeko irizpideen arabera balioztatu beharreko dokumentazioa barneratzen zuten "B". zenbakiko artxibo elektronikoak ireki ziren.

Hauek izan ziren onartutako 3 enpresek aurkeztutako eskaintzak:

ENPRESA	Proposamen ekonomikoa	Berme-epea
EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L.	206.284,88 €	5 urte
CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.	196.127,54 €	5 urte
SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	208.664,95 €	5 urte

Enpresa lizitatzailleek lortutako puntuazioen sailkapena, handienetik txikienera:

ENPRESA	Prop. teknikoa	Prop. ekonomikoa	Bermea	GUZTIRA
CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.	15,00	75,00	10,00	<b>100,00</b>
EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L.	15,00	70,01	10,00	95,01
SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	15,00	68,84	10,00	93,84

Ondorioz, eta lehen sailkatua CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L. izanik, kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitatzailleen erregistroan inskribatuta dagoela baieztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko fidantza eratu zezala eskatu zitzaion.

CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.k fidantza eratu du.





Hau honela, kontratazio mahaiak CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L-ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia kontuan izanda, kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 botoz (EAJ), abstentzio 1ekin (EH Bildu) eta aurkako botoirik gabe, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehena.- Zubizkitza auzoko 2. fasearen berrurbanizazio obrak CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L.ri esleitzea, EHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA EHUN ETA HOGEITA ZAZPI euro ETA BERROGEITA HAMALAU zentimo (196.127,54 €) gehi dagokion BEZ prezioan, hau da, proposatzaileak bere eskaintza ekonomikoan jarritako prezioan.

Bigarrena.- Esleipen honen jakinarazpena kontratazio prozedura honetara aurkeztutako guztiei egitea, hala nola kontratatzailearen profilean argitaratzea.

#### IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

##### Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 23-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea, astean 4 orduetik 8 ordira, otsailaren 28tik aurrera, onuradunak zainketa denbora gehiago behar duelako.
- 24-11-02 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea egunean 3 orduetik 1,5 ordira, zainketailearen egoerak hobera egin duelako. Murrizketa hau martxoaren 5etik aurrera egingo da.

##### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 14-01-005 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 89 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 89 da.
- 16-01-005 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 22-01-001 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 93 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 93 da.
- 22-01-014 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 120 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik ekainera eta alokairu gastuetarako hilean 250 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik ekainera. Eman daitekeenaren % 100 da.



- 22-01-015 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 85 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 212,5 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 85 da.
- 23-01-005 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 117 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 195 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 78 da
- 24-01-001 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 50 €-ko dirulaguntza ematea otsailetik ekainera eta alokairu gastuetarako hilean 125 €-ko dirulaguntza ematea otsailetik ekainera. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 24-01-002 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 97 €-ko dirulaguntza ematea otsailetik abendura. Eman daitekeenaren % 97 da.
- 24-01-003 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 117 €-ko dirulaguntza ematea otsailetik abendura. Eman daitekeenaren % 78 da.

#### V.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapen Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

#### Merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza sustatzeko dirulaguntzak.-

Lazkaoko merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza sustatzeko dirulaguntzak arautzeko oinarriak eta 2024ko deialdia onartzeko proposamena egin du Ekonomia Sustapeneko batzordeak.

Proposamenari erantsitako oinarriek honakoa diote:

### **"MERKATARITZA, ZERBITZUAK ETA OSTALARITZA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK**

#### IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

##### *1. artikulua. Xedea.*

Lazkaoko Udalaren plan estrategikoaren barruan helburu nagusienetariko bat Lazkaoko ekonomiaren sustapena izanik, eta zerbitzu sektoreak udalerriko garapenean duen garrantzia kontuan hartuta, herriko ekonomia aberastasuna eta enplegua sortzen duen jarduera izanik, Udalak txikizkako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuekin elkarlana bultzatu nahi du.





## LAZKAOKO UDALA

Ekonomia sustatzeaz gain, merkataritza dagoen tokian bizia dagoela kontuan izanik, harreman honen bidez herria girotzea da helburu bat, Lazkao herri bizi bat izan dadin.

Bestalde, Lazkao herri euskalduna izanik eta hau bermatu eta sustatu nahian, Udalak euskararen erabilera indartu nahi du baita txikizkako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen jardunean ere.

### *2. artikulua. Organo eskuduna.*

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra da, azaroaren 17ko 38/2003 Diru Laguntzen Lege Orokorrak bere 17.2 artikuluan dioenarekin adostasunean eta baita ere udal honetako aurrekontu exekuziorako udal arauak dioenaren arabera.

### *3. artikulua. Ezargarri den araudia.*

Diru-laguntzak ematea eta onuradunaren eta entitate emailearen arteko harreman juridikoa oinarri hauen arabera eta laguntza ematen den unean indarrean dagoen araudiaren arabera arautuko dira.

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte diru-laguntzak:

- Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Diru-laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Lazkaoko Udalak diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal oso-bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa.

### *4. artikulua. Pertsona onuradunak.*

Lazkaon salmenta irekiko establezimendua duten jarduera ekonomikoen titularrek eskatu ahal izango dute diru-laguntza hau, baldin eta merkataritza eta ostalaritzako epigrafe espezifikoetan Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda badaude, bai eta zerbitzu-jardueren ere.

Kanpoan geratuko dira 10 langile baino gehiagoko soldatapeko langileak dituzten jarduerak.

Finantza-jarduerak eta industria-jarduerak ez dira laguntza hauen onuradun izango.

### *5. artikulua. Baztertzeak.*

Deialdi honetatik kanpo honako hauek geratzen dira:

- a) Diru Laguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.



b) Udalarekin edota Gizarte Segurantzarekin edozein motako zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituzten zergadunek aurkeztutako eskabideak. Betebeharrak egunean dituzten jakiteko egiaztapena egingo da, ofizioz.

c) Ez dira aintzat hartuko beren jarduera publikoetan indarrean dagoen legea (jaiotza, arraza, sexu, erlijio iritziagatik diskriminazioaren debekua) betetzen ez duten elkarte edo erakundeak edo pertsonen eskabideak.

## ESKAERAK

### *6. artikulua. Eskabideak aurkeztea.*

Diru laguntza hauek jaso ahal izateko, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte eskatzaileak:

- a) Diru laguntza-eskabide normalizatua, beteta eta sinatuta.
- b) Identifikazio Fiskaleko kodearen (IFK) edota NAN dokumentuaren fotokopia.
- c) Eskatzaileak zabaldutako kontu korrante baten jabe dela erakusten duen agiria.
- d) Dirulaguntza eskatzen duena elkarte bada, erakundearen: kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab.
- e) Egindako gastua justifikatzen duten faktura orijinalak, ordainduta daudela egiaztatuta.
- f) Gizarte Segurantzarekin eta Gipuzkoako Foru Ogasunarekin egunean dagoen ziurtagiriak.
- g) Beste sail, instituzio, erakunde eta abarri egindako diru laguntza eskaeran nahiz lortutako diru laguntzen berri ematen duen zinpeko aitortpena.

Interesaturen batek adierazten badu oinarri hauetan eskatzen diren dokumentuetako batzuk Lazkaoko Udalaren esku daudela eta Udalak hori hala dela baldin badaki, interesatuak ez du dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango.

Edonola ere, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

Dokumentazioa eta informazioa lortzeko eta eskabideak aurkezteko lekua: Lazkaoko Udalaren bulegoak.

Baldin eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, edo oinarri hauetako baldintzak beteko ez balitu, 10 lan eguneko epean forma-akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko eskatuko zaio. Gainera, ohartaraziko zaio hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, eta, horrenbestez, eskaera besterik gabe artxibatu egingo dela, gaur egungo arauak agintzen duenez.





Eskaeraren ale bat erakunde eskatzaileak jasoko du, eta bestea, Udalaren Sarrera Erregistroan.

*7. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea.*

Eskabideak, dagokion deialdian adierazitako epealdian aurkeztuko dira.

*8. artikulua. Diruz lagunduko diren gastuak.*

Diru-laguntza hauen helburu orokorra Lazkaoko merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza sustatzea izanik, azpihelburuak ondorengoak dira:

1. Udal zerga zama txikitzea: Lazkaon irekiera berriko txikizkako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu jardueretan edo jada indarrean daudenetan, kasuan kasu, alde batetik EIO zergari lotuta dauden epealdian burututako berritze eta modernizazio lanen gastuengatik laguntza, eta bestetik, jardueraren irekiera lizentziaren tasarengatik laguntza.
2. Euskara bultzatzea: batetik kalera begira jartzen diren errotulazioetan eta bestetik "Ticketbai" fakturazio sistema berrian aplikazio informatikoaren erabileran.
3. Irisgarritasuna bultzatzea: diruz lagunduko dira merkataritza eta ostalaritza lokaltarako irisgarritasun unibertsala bermatzeko egiten diren obra lanen gastuak, 1/2013 Legegintzako Errege-Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritako betetzera bideratuta.

*9. artikulua. Eskabideak ebaluatzeko irizpideak.*

Aurkeztutako eskabideak eskumena duen Udalaren Ekonomia eta Etxebizitza Arloak tramitatutako ditu, bai aztertu eta baloratu ere.

*10. artikulua. Diru laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.*

Laguntza zenbatekoak ondorengoak izango dira:

- Irekitze berria izateagatik zenbateko finkoa: 1.500 euro.
- Lokalak egokitzeagatik zenbateko aldakorra, justifikatutako gastuen % 20, betiere 1.500 euroko guztirako mugarekin. Gastu hauen justifikaziorako dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira eta ordainduta daudela egiaztatatu.
- Gastua euskaraz errotulatzera bideratuta badago edota jada dagoen errotulazioaren euskaratzera, lan honi zehazki dagokion gastuaren laguntza % 80koa izango da, betiere 500 euroko guztirako mugareki. Gastu hauen justifikaziorako ere dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira eta ordainduta daudela egiaztatatu.



"Ticketbai" fakturazio sisteman euskarazko softwarea jartzeagatik zenbateko finkoa: 250,00 euro.

Ordainketa:

Diru laguntzaren % 100eko kopurua diru laguntza ematea onartzen denean ordainduko da.

*11. artikulua. Ebazpen eta jakinarazpen epea*

Ebazpenak eman eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da gehienez ere, eskabi-deak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

*12. artikulua. Beste diru laguntzekin bateragarritasuna.*

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarri izango dira, betiere gastu osoaren gainfinantzazioa ematen ez bada. Kasu honetan, dagokion gainfinantzatutako zenbatekoa Lazkaoko Udalari itzuli beharko zaio.

*13. artikulua. Ez betetzea.*

Oinarri hauetan edo diru laguntzaren ematean ezarritako edozein betebeharrerako edozein ez betetzeak, diru laguntza berraztertzea eragingo du eta, hala badagokio, baliogabetu edo emandako diru kopurua itzuli ogingo beharko da, diru laguntzak emateko udal arautegian aurreikusitako moduan.

Diru laguntzak itzultzeko prozesura ofizioz hasiko da, laguntza edo diru laguntza eman zuen organoaren eskariz, eta hala badagokio, emandako diru laguntza baliogabetzea, murriztea edo itzultzea erabaki ahal izango da, behar bezala arrazoituta. Prozeduraren izapideetan interesatuaren entzute eskubidea bermatuko da.”

2024. urterako deialdiaren testua berriz honakoa da:

**“LAZKAOKO MERKATARITZA, ZERBITZUAK ETA OSTALARITZA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA 2024. URTERAKO.**

*1. artikulua. Xedea.*

Laguntza hauen deialdi honen xedea da 2024 urtean Lazkaon merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jarduera berrien instalazio gastuak hala nola lehendik martxan dauden jardueren egokitzapen eta modernizatzearen gastuak zati batean laguntzea.

*2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.*

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 9.000 eurotakoa izango da, eta hori 2024. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:



1.471.03.433.01 zbk.dun partida, «Merkataritza irekiera, obrak» .





*3. artikulua. Ezargarri den araudia.*

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Diru laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa; eta Lazkaon merkataritza eta ostalaritza sustatzeko laguntzak emateari buruzko berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2024ko martxoaren 19an onartutakoak.

*4. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aukezteko epea.*

*4.1. Dokumentazioa:*

- a) Diru laguntza-eskabide normalizatua, beteta eta sinatuta.
- b) Identifikazio Fiskaleko kodearen (IFK) edota NAN dokumentuaren fotokopia.
- c) Eskatzaileak zabalduko kontu korrante baten jabe dela erakusten duen agiria.
- d) Dirulaguntza eskatzen duena elkarte bada, erakundearen: kideak, helburuak, egiten dituen jarduerak, etab.
- e) Egindako gastua justifikatzen duen faktura orijinalak, ordainduta daudela egiaztatuta.
- f) Gizarte Segurantzarekin eta Gipuzkoako Foru Ogasunarekin egunean dagoenaren ziurtagiriak.
- g) Beste sail, instituzio, erakunde eta abarri egindako diru laguntza eskaeran nahiz lortu-tako diru laguntzen berri ematen duen zinpeko aitortpena.

*4.2. Eskariak aurkezteko epea:*

2024ko abenduaren 31n amaituko da.”

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren eta oinarrietako 10. artikulua bertatik ezabatu eta deialdian dagoen bezala txertatzearekin ados egonik, aho batez, merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza sustatzeko dirulaguntzak arautzeko oinarriak eta 2024ko deialdia onartzea erabaki du.

Merkataritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko erosketa bonuen 2024ko udaberriko kanpaina.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko udaberriko plangintza-ren barnean erosketa bonuen kanpaina antolatzeke proposamena egin du Jarduera Ekonomikoko batzordeak.



## **"LAZKAOKO MERKATARITZA ETA ZERBITZU SEKTOREA SUSPERTZEKO EROSKETA BONUEN 2024ko UDABERRIKO KANPAINA**

### *1. artikulua. Xedea.*

Erosketa bonuen kanpaina honek diru-laguntza izaera du eta egungo merkataritza ohituraren aldaketa dela eta, Lazkaoko merkataritza eta zerbitzuetako jarduera berreskuratzeko, erosketak herrian bertan egitea sustatuko duen eta herriko familien ekonomia lagunduko duen bonu sistema sortzea du helburu.

Kanpaina honek bonuak jarriko ditu zirkulazioan, herriko establezimenduetan gastatzeko, eta herriko eta inguruko biztanleei aukera emango die bonuak eskuratzeko.

Hauek dira programaren helburuak:

- Herriko establezimenduetan salerosketak piztea, herriko ekonomia bultzatu eta bertako kontsumoa indartu eta sustatzeko.
- Lazkaoko familien ekonomia laguntzea.
- Orokorrean herrian merkataritza bultzatzea.

### *2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.*

Kanpaina honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 20.000 eurokoa izango da, eta hori 2024. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

1.471.02.433.01 zbki.dun partida, «Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak sustatzeko» .

### *3. artikulua. Ezargarri den araudia.*

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Diru laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa; eta Lazkaon merkataritza eta ostalaritza sustatzeko laguntzak emateari buruzko berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2023ko irailaren 25ean onartutakoak.

### *4. artikulua. Bonuen kopurua eta balioa*

Lazkaoko Udalak 2.000 bonu jarriko ditu salgai 2024ko udaberriko kanpaina honetan.

Bonu bakoitzak 30 euroko prezioa izango du eta aldiz 40 euroko balioa, hau da, 40 euroko erosketa ahalmena emango du.

Bonuak erosteko unean bertan ordaindu beharko dira eta ordainketa sistema banku-txartela izango da.

### *5. artikulua. Programaren funtzionamendurako ezaugarriak*





- a) Bonuak 5 euroko 8 txarteletan frakzionatuta banatuko dira, eta frakzio edo txartel bakoitza zatiezina izango da: erosketa bakoitzean gutxienez horietako frakzio oso bat erabili beharko da.

Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baina txikiagoa bada diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Hortaz bonu frakzio bakoitza erosketa edota kontsumizio bakoitzean osorik agortu beharko da.

- b) Frakzio edo txartel hauetatik 3 edozein saltokitan erabili ahal izango dira, eta beste 5 txartelak janari dendetan izan ezik, gainontzeko guztietan.

- c) Bonuak ezin dira dirutan trukatu eta ez da inolaz ere eskudirurik itzuliko.

- d) Herritar bakoitzak 5 bonu erosi ahal izango ditu gehienez. Bonuak zenbakituta egongo dira eta eroslearen NAN zbkia. jasoko da salmenta uanean.

Pertsona batek beste baten izenean bonuak erosi ahal izango ditu honen NANA aurkezten badu, gehienez ere hiru pertsonen ordezkartzan.

- e) Herritarrek programan parte hartu ahal izateko ez da beharrezkoa izango Lazkaon erroldatuta egotea.

#### *6. artikulua. Bonuen salmenta*

Bonuen salmenta udaletxean egingo da, bertako harrera ordutegian. Astelehen goizetan eta ostiral arratsaldetan salmenta plazan egin ahal izango da.

#### *7. artikulua. Kanpainaren iraupena eta izenemateko epea:*

Kanpaina 2024ko maiatzaren 6an hasiko da eta ekainaren 14an amaituko da.

Kanpaina parte-hartu nahi duten establezimenduek eskaera egiteko epea martxoaren 22tik apirilaren 10a arte luzatuko da."

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, merkataritzaren sustapenerako 2024ko udaberriko bonoen kanpainaren deialdi hau onartzea erabaki du.

### VI.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko plangintza-  
ren barnean baserritar ekoizleen erosketa bonoen kanpaina antolatzeko proposamena  
egin du Landa Lurreko Batzordeak. Proposamenari erantsitako kanpainaren oinarrien  
ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:



Epea: maiatzaren 6tik azaroaren 30era.

- Kopurua: 200 bono jarriko dira salgai, 20 eurotan erosi eta 35 euroko erosketa ahalmena emango dute (15 euro hauek Udalaren dirulaguntza izango da).
- Ekoizleek bonoak jasoko dituzte beraien salmentetan eta ondoren Udalera ekarriko dituzte Udalak dagokien ordainketa egiteko.
- Gastua: 3.000 €, aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik ordainduko da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez baserritar ekoizleen sustapenerako 2024ko bonoen kanpaina hau onartzea erabaki du.

#### VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

#### VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



The image shows the official logo of Lazkaoko Udala, which consists of a shield with a crescent moon and a star, and the text "LAZKAOKO UDALA" below it. To the right of the logo is a blue ink signature.